

Getxoko Udalaren  
Berdintasun Zerbitzuko  
Argitalpena

# EMEKI


Martxoa  
2013  
27. Zbk



BERDINTASUNAREN ALDE, KIROLEZ BLAI!

MARTXOAK 8

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA



**Getxo**  
*bizi ezazu*

## Sarekide, kideak sarean



J.M. Chavarri  
Zuazo parkea, zk.g  
48930 Getxo  
Tel: 946 122 845  
688 867 497  
info@sarekidegetxo.org  
www.sarekidegetxo.org

**Aurrez aurreko arreta: asteartetan, 17:00etatik 20:00etara**  
**Telefono bidez: asteartetan, 15:30etik 20:30era**  
**eta ostegunetan, 09:00etatik 14:00etara**

**B**oluntariotzan diharduten 17 erakundetako 400 bat pertsonak osatzen dute Getxoko SA-REKIDE Elkarte berria. Izen aldaketa hori 2003an sortutako FEGEVOL federazioak azkeneko urteotan antolaketan mailan bizi izan dituen eraldaketetatik etorri da, garai eta lan egiteko era berrietara egokitzeko helburuarekin. "Antolatzeke modu berri honekin sarean lan egitea lortu dugu eta hori oso garrantzitsua da, kolektibo ezberdinetan lan egiten dugun 17 erakunde baikara: immigrazioa, desgaitasuna, emakumeak, adinekoak, osasuna, etab. Guztiok elkarte bakar batean lan egin ahal izatea oso aberasgarria da boluntariotzaren irudi indartsu bat eratzeko", dio elkarteko teknikari Cristina Albizuak.

SAREKIDE elkartearen zeregin nagusia da udalerrian boluntariotza sustatzea eta indartzea. Elkarteko kide diren erakundeek zeregin aktiboa dute Elkartearen helburuak lortzerako orduan, eta erakunde horietako bakoitza lantalde bateko kide da, ordezkatzan duen pertsona baten bidez. Lan-talde bakoitzak (gaur egun hiru daude) gai ezberdinak jorratzen ditu: lehenengoak, topaketak; bigarrenak, barneko lana eta hirugarrenak, komunikazioa.

Boluntariotzako ondorengo erakundeek osatzen dute Sarekide: ACAMBI (Bularreko Minbiziaren Bizkaiko Elkarte), AECC (Minbiziaren Aurkako Elkarte), AHIDA (Arreta-falta eta Hiperaktibitatea dutenen Elkarte), Argia Fundazioa, ASEBI (Arantza Zatibituaren eta Hidrozefaliaren Bizkaiko Elkarte), Bizkaiko ASPACE (Garun-paralisiak kaltetutako familien Elkarte), EUROPARK (Parkinson Gaixoen Europako Elkarte), Adimen-desgaitasuna duten Pertsonen aldeko Uribe Kostako Elkarte, APSORIASIS (Psoriasis duten pertsonen Euskal Herriko elkarte), AVIFES (Gaixotasun mentala duten Pertsonen eta Familiako Bizkaiko Elkarte), ASBILA (laringektomizatutako pertsonen Bizkaiko Elkarte), BIZKEL (Bizarrezur-muineko Lesioa dutenen Bizkaiko Elkarte), Getxoko Cáritas, Down Sindromearen Euskal Herriko Fundazioa, GIZATIAR (Erromo-Areetako emakumeen Elkarte soziokulturala), Sortarazi eta URTE ALAIK.

## Getxoko Emakume Elkarteak

### BILGUNE FEMINISTA

Elkarte Feminista  
ehbfgtxo@euskalerrria.org

### ENCLAVE DE CIUDADANAS POR GETXO

Plataforma Cívica por la Igualdad  
Harremanetarako: Rosa Mari Comonte  
Tnoa. 94 602 47 87 . 68 posta kutxa  
enclavedeciudadanasporgetxo@gmail.com  
enclavedeciudadanasporgetxo.blogspot.com

### ESKUZ-ESKU

Prestakuntza  
eta Garapenerako Emakumeen Elkarte  
C/ Puerto Orduña, 16 bajo . 48993 Getxo  
Tnoa. 94 430 08 35  
asociacion@eskuz.e.telefonica.net

### GIZATIAR

Erromo eta Areetako Emakumeen  
Gizarte eta Kultur Elkarte  
C/ Ezequiel Aguirre 14  
48930 GETXO  
Tnoa. 94 655 84 35  
gizatiar@hotmail.com

### RODA

Kultur Elkarte  
Areetako Etorb., 10 bajo-drcha - 48930 Getxo  
Tnoa. 94 463 18 96  
asociacion\_roda@telefonica.net

### EMAKUMEEN AHOTSA

Etorbin eta bertako emakumeen topaketak  
bultzatzen dituen elkarte da  
asociacionmujeresconvoz@gmail.com

### Argitaratzen du:

**Getxoko Udalaren Berdintasun Zerbitzua.**

Fueras, 8. 48992 Getxo.

Tnoa.: 94 466 01 36.

e.posta: berdintasuna@getxo.net.

Web: www.getxo.net.

**Erredakzioa eta Diseinua:** Kahlomedia S. Coop

**Lege Gordailua:** BI-1788-07

Testu hauen erabilera baimentzen da, beti ere iturria aipatuz.

**M**artxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna, dela eta, urtero data horretan emakumeen aldarrikapenei komunikabideen eta jendartearen aldetik eskaintzen zaien arreta handia aprobetxatzen dugu oraindik bereizkeriak dituzten esparruak aztertzeko. Aurten, 2013ko kanpainarako, Getxoko Berdintasun Kontseiluak emakumeak eta kirola gaia hautatu du.

Duela hilabete gutxi, iraileko zenbakian, generoaren eta kirolaren arteko harremanak jorratu genituen Emekiren erdiko orrietan. Hala ere, beti egin ohi dugun moduan, martxoaren 8rako programaturako jarduerekin batera zenbaki berezia egin nahi izan dugu kanpainako gai berari buruz. Aurreko zenbakian Getxoko emakumeen eta gizonen kirol praktinari buruzko diagnosiari errepasoak egin eta kirol federatua emakumeek duten ikusezintasuna eta baliabide gabezia aztertu genituen; oraingoan, kirolean dauden genero-estereotipoei eta neska nerabeek kirol-praktika behin betiko uzteko izaten dituzten arrazoiei buruz hitz egiten dugu, eta, modu positiboago batean, oso emaitza onak lortzen ari diren Getxoko emakume kirolariei eta klubei buruz.

Era berean, albiste garrantzitsuak jaso ditugu, hala nola EAEko eta Nafarroako erakunde feministen koordinakundeak data hauetan emakumeen sexu- eta ugaltze-eskubideen alde egiten duen kanpaina, aborto-eskubidea arautzen duen legerian aldaketak egon daitezke eta; edo etxeko enpleguaren sektorean berriro gertatzen ari diren aldaketak.

Bestalde, ezin ditugu ahaztu Emekiren zenbaki honek dituen aldaketa garrantzitsuak. Batetik, garrantzitsuena: aldizkaria guztiz elebiduna da, euskarazko eta gaztelaniazko edukiak bikoiztu dira, eta azal bikoitza du. Baina, era berean, ale kopurua murriztu da (5.000tik 4.000ra igaro da) eta paperaren kalitatea gutxitu da, orrialde kopurua handitzeak ekarri duen ahalegin ekonomikoa konpentsatzeko.

Amaitzeko, eta beti bezala, Getxoko gizon-emakume guztiei gonbita egin nahi izan diegu Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzeko programaturako jardueretan parte hartzeko.



*“Gorputz bakoitza mugarriztatutako lurraldea da, “ni”aren eta “besteen” arteko mugarri espaziala”. Gorputz bakoitzaren lurraldea norberaren espazioa da, mugatu daitezkeenen artean pribatuena eta bazterrera uztea ezinezkoena dena”.*

**Maria Ángeles Durán. “De puertas adentro”, 1988**

## Emakumearekiko bereizkeriak kirolaren ezaugarri izaten jarraitzen du

*Emakumeak berandu iritsi dira kirol-mundura eta zailtasun handiak izan dituzte bide horretan. Gizarte- eta kultura-estereotipoek sortutako oztopoak gaindituz joan behar izan dute emakumeek. Hala ere, kirola berez ez da diskriminatzailea eta ez dauka sexurik. Jendarteak da gizonezkoen eta emakumeen jarduera fisikoaren arteko bereizkeriak egiten dituena. Komunikabideetan azaltzen diren kirol-munduko erreferente gehienak gizonak dira, emakumeek egindako kirola alboratuz. Gainera, baliabide gutxiago dauzkate eta kalitate okerragoak*



### KIROL-MUNDUKO BEREIZKERIAK

Gaur egun, oraindik ere, emakume eta neskatok oztopoak aurkitzen jarraitzen dute, kirol-munduan berdintasunez sartzeko. Errealitate hori aztertzeke ez da nahikoa parte-hartzea bakarrik kontuan hartzea, beharrezkoa da emakumeek haien ibilbide fisikoan eta kirol-ibilbidean zehar bizi izaten dituzten bereizkeria egoerak, lehiaketetara iristeko erraztasunak, pizgarriak, esperientziaren bidez lortutako poztasuna edo kirol-jardunbidearen iraupena aztertzea ere.

Lehendabizi, familiaren eta eskolaren esparruek izaten dute eragina, jendarte - eta kultura-estereotipoen bidez. Gazteen parte-hartzea kirolean ez da neurri berean sustatzen, sexuaren arabera. Barneratutako sexu-rolen arabera, familiek neskatok eta mutikok egin behar dituzten jarduera fisikoak aukeratzen dituzte. Aukeraketa horretan, kirolaren aurrean dauzkagun itxaropenek ere izaten dute eraginik. Estatuako Emakumearen Institutuak argitaratutako **Elige tu deporte** txostenaren arabera, “mutilak neska baino hobeto dohatuta daudela eta urrunago iritsiko direla uste izaten da eta neskek berandu baino lehen utziko dutela alpora kirol-jarduna”.

**E**makumei ez dagokien zerbait bezala hartu da kirola urte askotan zehar. Grezia klasikoan, K.a. 776. urtean, lehen olimpiar jokoak sortu zirenean, ez zitzairen emakumei parte hartzen utzi, gizonezkoen zuzendutako prestigio handiko jarduerak zirelako ustean. Eta ez hori bakarrik, publiko gisa joatea ere debekatu egin zitzairen, garai hartako moralak ez baitziren emakume ezkonduen kirolariak biluzik ikusten uzten.

Emakumeen kirolari ez zitzaien aterik irekiko 1900. urtera arte. Joko Olimpiar moderno izen-

datu ziren haietan, sei emakume onartu ziren, tenis eta golf kategorietan, Pierre Coubertin joko haien sortzaileak “antiestetiko eta desagokizat” jo zuen arren.

Handik aurrera, emakumeen kirola instituzionalizatu egin zen. 1917an, zehazki, Emakumeen Nazioarteko Kirol Federazioa sortu zen eta, 1930ean, Emakumeen Munduko Jokoak antolatu ziren; tradizionalki gizonezkoak ziren txapelketa garrantzitsuak txapelketa misto bihurtuz joan ziren heinean, emakumeen joko horiek indarra galduz joan ziren, desagertu egin ziren arte.

Gizarte-prestigio handiena duen kirola oldarkortasuna eta lehiakortasuna bezalako jarrekin lotuta egoten da sarritan, eta ezaugarri horiek gizonetzkoen generoari dagozkion ustekizuna izaten da. Ainhoa Azurmendi psikologo eta kirol-aholkulariaren arabera, estereotipoek eragin zuzena daukate emakumezkoen kirola gizonetzkoena baino gutxiagokotzat jotzerakoan. “Neskatilek proiektatzeko erreferente gutxiago daukate eta horrek kirol-jarduerarekiko erakitzen duten harremana baldintzatzen du, izan ere, haien bizitzako une jakin batean egingo duten zerbait bezala barneratzen dute kirola, baina ez dute aukera profesional gisa proiektatuko”

Hain zuzen ere, kirola bertan behera uzteari buruz Carmen Díezek eta Rosa Guisadolak egindako azterketa batek dio

oraindik ere sexu-estereotipoen arabera aukeratzen dela kirol-modalitatea. Sexu bakoitzaren kirol-joerak eta -ohiturak ezberdinak dira: gizonak lagunartean elkartzen dira, alderdi ludikoa nagusi den kirol-jarduerak egiteko helburuarekin; emakumeen kasuan, berriz, askotan helburu estetikoak dauzkan tresna bat izaten da kirola, sasoi fisikoa bilatzen duena.

Hala eta guztiz ere, argi dago azkeneko urteotan handitu egin dela emakumeen parte-hartzea errotze maskulino handia duten kirolekin. Euskal Autonomi Erkidegoaren kasuan, hazkunde horretan eragin handia izan dute neskak proiektatu ahal izan diren kirol-ereduek, hala nola, Athletic eta Real Sociedadeko emakumezkoen taldeetako jokalaririk edo Getxoko emakumezkoen Errugbi taldeko

jokalaririk nabarmentzen dira. Alabaina, kirol horiek egiten dituzten emakumeen jokaera maskulinizatu bat espero izaten da oraindik ere.

Kasu horietan, “jarduera ez da emakumeen beharretara eta nahietara egokitzen, alderantziz, baizik; emakumeak izaten dira gizonetzkoek eta gizonetzkoentzako diseinatutako ereduetan integratzen direnak, nahiz eta, behar bada, eredu hori ez izan haientzako askiesgarria edo egokia. Horrekin ez dut esan nahi lehiaketa gustatzen ez zaigunik, ezta gutxiagorik ere. Esan nahi dudana da eskaintza eskaerari egokitu behar zaio: neskentzako ekipamenduak, lehiaketa-araudiak, baloiaren tamaina, sareen altuera, etab.; eta emakumeen ahotsa kontuan izango dituen lehiaketaren eta jardueraren antolaketa bat”, dio Azurmendik.

**NESKEK NERABEZAROAN JARDUERA FISIKOA ETA KIROL-JARDUERA UZTEAREN ARRAZOI BATZUK\***

**INTERES ALDAKETA** Garrantzia handiagoa ematen diete harreman sozialei eta harreman horiek denbora eta dedikazioa eskatzen dute.

**KIROL-JARDUEREN ESKAINTZA** ez da haien interesetara egokitzen eta dagoeneko ez ditu haien beharrak eta gustuak asetzen.

**DENBORA-GATAZKA.** Beste jarduera batzuei denbora gehiago eskaintzea, ikasketei, adibidez.

**TALDEAREN ERAGINA** Nerabezaroan, lagunak dira nerabearen jokaerarengan eragin handiena dutenak. Neskaren lagunek kirola egiteari uzten badiote, baita berak ere. Neska nerabeentzako, kirol-jokalekuak ez dira lagunak elkartzeko tokirik gustukoena.

**GURASOEN ERABAKIAK;** ohartuki edo oharkabean, seme-alabek ohitura aktiboak uztea laguntzen dute, nota txarrak izan dituztelako kirol-jardueretatik kanpo utziz eta laguntza ekonomikoa emateari eta kirola praktikatze-ko materiala erosteari utziz.

**BIZITZA AKTIBOKO OHITURAK EZ SENDOTU IZANA,** bizitzako lehenengo etapetan.

*\*VEIGA, Oscar, Género, refuerzo social y actitud hacia el deporte como determinantes de la práctica de la actividad física y deportiva en el tiempo de ocio de escolares adolescentes. Análisis de sus relaciones con el estado de salud percibida. Estudio sobre la población del municipio madrileño de Leganés. Madrid, Instituto Nacional de Educación Física, Universidad Politécnica de Madrid. (Egiten ari den doktorego-tesia).*

Gizonetzkoek baino emakumezko kirolari gazte gehiagok uzten dute alde batera kirola, beste lehentasun batzuk ezartzen dituztelako. Rol sozialen eraginez, emakume horiek ikasketak eta familiako ardurak garrantzitsuagoak direla barneratzen dute eta lehiaketa eta sarritan lehiaketak dakartzan ezaugarriak – oldarkortasuna, indarra, potentzia – ez dagozkiela emakumeei. Egiatan gertatzen dena da kirol federatua praktikatzeko emakumeen proportzioa gizonetzkoena baino askoz baxuagoa dela. Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzak emandako datuek erakusten dute emakumeen presentzia garbiki minoritarioa dela: Federazioen %35ean %10aren azpikoa; eta Federazioen %57an, %10 eta 40 artekoa. Hipika, boleibol eta gimnasiako kategorietan bakarrik dago paritariotzat jo daitekeen (%41 baino gehiago) emakumeen presentzia.

**BABES EKONOMIKOA ETA SOZIALA**

Emakumezkoen kirolera baliabide gutxiago bideratzen da eta kalitate eskasagoko baliabideak izaten dira: entrenamenduetarako prestakuntzarik gabeko teknikariak, ezorduko entrenamenduak eta partiduak, egoera txarrean dagoen materiala, ordainsaririk eza, etab. “Lehen mailako Futbol Ligan, ez dute emakumezkoen talde guztiek kobratzen. Hori pentsaezina litzateke gizonezkoen kategorian”, salatzen du Sara Melgar-ek, areto-futboleko jokalaria eta kirolaren bitartez pertsonen integrazioa bilatzen duen Kirol Aunitz elkartearen kidea.

Erakundeetatik jasotzen den babes ekonomikoa eta soziala funtsezko faktorea da emakumeek kirol jakin batzuk praktikatzeko jarrai dezaten. Gizon eta Emakumeen berdintasun Eraginkorrerako 2007ko Legearen 29. artikulua zera bermatzen du: babes publikoak ez dituela kirol-proiektuetan diskriminatuko; hala ere, lege honek ez ditu enpresa pribatuak finantzatzeko klubak, gertaerak eta programak aipatzen.

Gainera, kirol-erakundeetako ardura-postuetan oso emakume gutxi dago. Kirol-kontseilu Gorenaren 2011ko memoriak erakusten duen bezala, federazioetako gobernu-organoen Zuzendaritza Batzordeetan 101 emakume eta 805 gizon zeuden. “Beharrezkoa da emakumeak ardura-postuetan egotea, bai haiei dagozkien alderdiei buruzko erabakiak hartzeko, baita emakumeen lidergo-estiloak kirol-kudeaketari ekarpen garrantzitsua egin diezaiokeela erakusteko ere”, azpimarratu du Azurmendik.

Zortzi ekitalditako ibilbidea duen Bizkaiko Mundialito BBK kultura-arteko futbol txapelketa emakumeek kudeaketan parte hartzen duten neurrian generodesberdintasunak zela desagertzen doazenaren adibide argia da.

“Emakumeek antolaketan dihardutenetik, lorpen asko lortu dira txapelketa honetan. Lorpen horien artean handiena izan da emakumeen eta gizonezkoen finalak zela berean jokatzeko. Gizonezkoena San Mamesen eta emakumeena Leioako instalazioetan jokatu zen bi urtez. Gainera, gizonezkoena 16:00etan eta emakumeena 18:00etan jokatu zen iaz. Alderantziz jokatu izan zen beti eta, neurri honi esker, emakumeen finalean jende gehiago egotea lortu zen”, adierazi du Sara Melgar-ek.

Bide batez, esan behar da emakumeen kirolei jarraipen txikiagoa egiten dietela komunikabideek. Komunikabideetan azaltzen diren kirol-munduko erreferente gehienak gizonak dira, emakumeek egindako kirola alboratuz. “Komunikabideentzako emakumeen lehiaketak ez dira existitzen. Gainera, emakumeak azaltzen direnean, ez da kirol-lorpenengatik izaten, emakume kirolarien irudiari buruzko estereotipo tradizionalak indartzeko, baizik”, deitoratu du Melgar-ek.

**GETXOTARROK ERE IRABAZTEN DUGU****María López de Eguilaz:**

Belar-hockeyko atezaina. Aurten holandar ligan, munduko ligarik onenean, jokatzeko ari da HDM taldearekin. Gainera, nazioarteko lehiaketetan jokatzeko Espainiako selekzioarekin; hainbat aurre-olinpiar jokatu ditu selekzioarekin, baita Beijingo 2008ko Joko Olinpiarrek ere.

**Nerea Eugenia Iturriaga:**

Punta Galea Elkarteko txirrindularia. Errepideko eta erlojuaren kontrako Bizkaiko Txapelketa irabazi ditu; gainera, errepideko Euskadiko azpi-txapeladuna da eta laugarren postuan sailkatu zen txapelketa horretako erlojuaren kontrako modalitatean. Euskadiren eskutik, Espainiako Txapelketan parte hartzeko aukeratu dute.

**Ilargi eta Oihane García Gaminde:**

Taekwondoko hainbat txapelketetan, ahizpa bien artean lau domina lortu dituzte. Ilargi García brontzezko domina eskuratu zuen Espainiako Txapelketetan eta zilarrezkoa Ciudad de Riveira Nazioarteko Txapelketan; Oihane García, berriz, urrezko domina lortu zuen Benicassimgo Irekian eta brontzezkoa Ciudad de Rivera Nazioarteko Txapelketan.

**Yahaira Aguirre:**

Hamazazpi aldiz lortu du judoko Espainiako txapeladun titulua. Horrez gain, Londongo gazteen Joko Olinpiarretan (1995) urrezko domina irabazi zuen, Unibertsitate-mailako munduko azpi-txapeladuna izan zen Jugoslavian (2002), zilarrezko domina irabazi zuen Bangkokon jokatuako Unibertsitate-mailako munduko txapelketan (2007) eta urrezkoa 2008ko eta 2009ko Britainiako Irekian.

**Emakumezkoen Getxo Errugbi Taldea:**

2012ko Euskal Ligako txapeladuna, Faduran Urbealdearen aurka jokatuako finalean 67-0 irabazi ondoren.

**Emakumezko gazteen Getxo Igeriketa-Waterpolo:**

Bizkaiko taldekako txapeladuna 4x50 eta 4x100 metro libretan. Azken modalitate horretan, gainera, laugarren postuan sailkatu ziren Espainiako Txapelketetan.

**Emakumezkoen senior mailako Futbol Taldea:**

2012ko maiatzean Euskal Ligarako igoera lortu zuen, herrialdeko lehen mailako kategorian hirugarren sailkatu ondoren.

## Ezagutzen al duzu duela gutxi txapelketaren bat irabazi duen eliteko emakume kirolaririk edo emakumeen kirol-klubik?



“Emakumeen Getxo Errugbi Taldea; ezagutzen ditut taldean jokatu duten neska batzuk eta badakit orain dela gutxi Euskal Liga irabazi dutela; gainera, egutegi bat egin dute”.

**Mainer San Martín, 24 urte.**

“Urte askotan, 10 edo 11 urtean, izan naiz Bizkerre futbol taldeko bazkidea eta badakit emakumezkoen futbol taldea ere badagoela, baina ez dut Getxoko edo Euskal Herriko emakumezkoen beste kirol-talderik ezagutzen, ezta kirolaririk ere”.

**Lisardo García, 74 urte.**



“Ez dut eliteko emakume kirolaririk ezagutzen, ezta Getxoko emakumeen klubik ere, ez baita interesatzen zaidan gai bat. Kirola, orokorrean, ez da nire interesekoa”.

**Rosa Maria García, 41 urte.**

“Badakit emakumezkoen hainbat kirol-talde dagoela Getxon, baina, momentu honetan, Bizkerre Futbol Taldea eta Errugbi Taldea bakarrik etortzen zaizkit gogora”.

**Xabier Eisaguirre, 17 urte.**



“Bai, Getxoko Arriluze Arraunketa Kluba; badakit emakume arraunlariak daudela eta dominak irabazi izan dituztela, gogoratzen dudak bakarra da. Garaiak asko aldatu dira, orain dela 40 urte emakumeei ez zieten klubean sartzen uzten eta orain bai. Nire alaba txikia zenean parte hartu nahi zuen eta ez zuen aukerarik izan, garaiak aldatu egin dira”.

**Gregoria Elisondo, 73 urte.**

“Joane Somarriba datorkit gogora, komunikabideetan hedapen handia izan zuela emakume txirindulari bezala, baina hori orain dela urte asko izan zen. Gaur egun, gauza bera gertatu da Eunate Agirre Bodyboard-eko munduko txapeldunarekin, sopelarra da, gainera; eta baita Mainer Unda txapeldun olinpiararekin ere. Elkarrizketa bat ikusi berri dut UK aldizkarian”.

**Aitor Subyaga, 49 urte.**



## Etxeko langileen eskubideetan atzerapausoa



**E**statuko Gobernuak Etxeko Langileentzako Sistema Bereziaren araudia aldatu du, aurreko erreformak ez duela itxaro zen arrakastarik izan alegatuz. Bere txostenen arabera, aurreko araudiak Gizarte-Segurantzari 63 milioi euroko galerak eragin zizkion eta ez zuen aurreikusitako altak emateko balio izan.

**Alabaina, ATH-ELE elkarteak (Bizkaiko Etxeko Langileen Elkar-teak)** emandako zifren arabera, estatutuan, gizarte-segurantzara afiliatutakoen kopurua 296.951tik 409.678ra gehitu da araudiaren aurreko erreformatik. Hala eta guztiz ere, Isabel Otxoa andreak, EHUKo irakaslea eta ATH-ELE elkarteko aholkularia, adierazten du “aldaketa egiteko moduaren ondorioz, etxeko langile askok ezin izan zutela ekonomia murgildutik irten, ez baitzuten paperik”.

Araudi berriak bi aldaketa barnebiltzen ditu: lehenengoak, indarrean 2013ko apirilaren 1ean sartuko denak, altaren eta Gizarte Segurantzaren kotizazioaren erantzukizuna (zeina alderdi kontratatzaileak ordaintzen jarraituko duen) kontratatutako alderdiari

transferitzen dio, hilean 60 zerbitzu-ordutik behera eskaintzen dituztenei, beti ere, bi alderdiak ados badaude. Aldaketa hori onartu aurretik kontuan hartu beharreko elementu bat 2012az geroztik alta berri guztietan aplikatzen den kuotaren %20ko beherapena galdu egingo litzatekeela da, enplegu-emaileak ordaindu beharrekoa gehituz.

**“Enplegu-emailearen alderdiak izan behar luke kotizatzearen arduraduna, gainerako sektoreetan egiten den antzera”** ziurtatzen du Otxoa andreak. Zehazki, Gizarte-Segurantzara egindako ekarpen-kuoten ordainketa enplegu-emaileak enplegatuari ordaintzeko eskubidea “ez da inolaz ere bermatzen. Hain zuzen, erantzukizuna subsidiarioa da, kasik inoiz ez dela egitera iritsiko ezartzearen parekoa litzateke”.

Bigarren aldaketak, pasa den urtarrilaren 1ean indarrean sartu zenak, kotizazio-oinarrien tramukopuruei eragiten die, zeinak, 15etik 8ra pasa diren. Gutxiengo kotizazio-oinarria 90etik 147 eurora pasatzen da, gehienezkoa 790 eurotan mantentzen den bi-

*“Aldaketa batek zein besteak atzerapausoa dakarte etxeko langileak Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean integratzeko ahaleginean eta hainbat eskubideren, besteak beste, kotizazioa edo gizarte-babesa, aitortpenean*

tartean. Aldaketa horren ondorioa ordu gutxien lan egiten duten etxeko langileek gehiago kotizatu beharko dutela izango da, haien erosahalmena gutxituz. “Asko dira etxe bat baino gehiagotan ordu gutxi batzuetan soilik lan egiten dutenak eta beren soldatak baino oinarri handiagoen gain kotizatu beharko dute: hori da alta ez sustatzeko bide nagusia” salatzen du Otxoa andreak.

Aldaketa batek zein besteak atzerapausoa dakarte etxeko langileak Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean integratzeko ahaleginean eta hainbat eskubideren, besteak beste, kotizazioa edo gizarte-babesa, aitortpenean.



## Agenda ...

### **MARTXOAK 8, NAZIOARTEKO EMAKUMEEN EGUNA**

#### **ASTEAZKENA, MARTXOAK 6**

**Hitzaldi-etzabaiada: Berdintasuna kirolean: aurrerapenak eta erronkak**

Hizlaria: Ainhoa Azurmendi Echegaray, kirolaria eta kirol-aholkularia  
19,00, etan, Villamonteko kultur etxean

#### **IGANDEA, MARTXOAK 10**

**Emakumeon martxa**

Algortako puntu lilatik, Bizkaia Zubiko puntu lilara  
Irteera: 10,00etan, Algortako geltokiko plaza  
Getxo Kirolak-ekin elkarkanean

#### **OSTEGUNA, MARTXOAK 14**

**Mahai-inguruak: Emakume getxotarren esperientziak kirolean**

19,00, etan, Villamonteko kultur etxean

#### **ASTELEHENA, MARTXOAK 18**

**Emakumeek egindako laburmetraiak**

19,00, etan, Villamonteko kultur etxean

\*Hautzaindegi-zerbitzua dago; horretarako, ezinbestekoa da eskaera bi egun lehenago egitea [berdintasuna@getxo.net](mailto:berdintasuna@getxo.net) helbide elektronikoan edo **94 4660136** zenbakian.



### **“NIRE GORPUTZA, NIRE SEXUALITATEA” BERTSO-PAPER LEHIAKETA**

Emakumeak gorputzaren eta sexualitatearen inguruan askatasunez erabakitzeke duten eskubidea aldarrikatzeko lehiaketa. Bertsoak **martxoak 17** baino lehen bidali behar dira haue-tako helbideren batera: [educa.bizkaia@medicmundi.es](mailto:educa.bizkaia@medicmundi.es) edo

**Nire gorputza, Nire sexualitatea bertsopaper lehiaketa.**

**Medicmundi Bizkaia. Begoñako Andra Mari kalea, 20 behe. 48006 Bilbo**

Apirilaren 12an, bertso-afaria eta sari banaketa Algortako San Nikolas ikastolan,  
21:00etatik aurrera

Txartelak salgai euskaltegietan eta ALBEn. Prezioa 4 €

**Antolatzen dute Medicmundi Bizkaia eta Getxoko Udala**

## Euskal Herriko Emakumeen Eskubideen Auzitegia sortu da

**E**uskal Herriko Emakumeen Eskubideen Auzitegia Bilbon egingo da ekainaren hasiera aldera, eta, horri esker, herritarren erreminta indartsua sortuko da salatze, konpontze eta estrategia berriak definitzeko emakumeen eskubideak urratzearen inguruan.

Era horretako auzitegiak gertaera publiko sinbolikoak eta kontzientzia hartzeak dira; horietan jendarte zibilak parte hartzen du, emakumeen aurkako indarkeria desberdinak agerian uzte eta zigorgabetasuna salatze aldera. Corinne Kumar Munduko Emakumeen Auzitegien Nazioarteko koordinatzailea da, eta, haren ustez, tresna horiek "indarra lortzen dute tokiko erakundeei esker; izan ere, horiek elkarrekin egiten dute lan eskualdeko kultura, ezagutza eta emakumeen jakintza ezberdinen artean elkarriketak bultzatzeko giroa sortzearen".

Lidia Ruiz Gómezek, Euskal Herriko Emakumeen Eskubideen Auzitegiaren talde arduraduneko kidea, erreferente gisa azpimarratzen du "Vienako Auzitegia, 1993ko Giza Eskubideen Munduko Konferenziaren esparruan egina, aurtan 20 urte beteko dituen. 33 emakumeren testigantzen bitartez, emakumeek historian zehar jasan duten ikusentzasuna eta giza eskubideek haien bizitzan duten esanahia aitortu ziren. Auzitegi horren ondoren, beste asko egin dira mundu osoan zehar, eta tresna oso erabilgarriak izatera iritsi dira emakumeen eskubideak eskatzeko".



Auzitegia sortzeko ideia Mugarik Gabe Enfrentamos todas las Violencias Machistas - Patriarkaturik Gabe Denok Jabe kanpaina zehar sortu zen. Kanpaina munduan egindako hainbat auzitegitan inspiratu zen eta "berezik, Guatemalako gatazka armatuan zehar Emakumeek jasadako Indarkeria Sexualaren kontrako Kontzientzia Auzitegian", zehaztu du Lidia Ruizek. Urtebetez barne-lana egin ondoren, 2012. urtearen erdi aldera, talde bat osatu zen beste lau erakunderekin batera: Hegoa, Bizkaiko Emakumeen Asanblada, Bilgune Feminista eta Feministalde. "Orain 20 erakunde baino gehiago gaude tartean sartuta: erakunde feministak, giza eskubideen erakundeak, talde sozialak, ordeko komunikabideak, e.a.", adierazi du Ruizek.

Auzitegian salatuko dira eskubideen urraketak hiru ardatz hauen inguruan: indarkeria sexuala, abortatzeko eskubidea ukatzea eta esplotazio ekonomikoa. "Euskal Herriko, Estatuko eta Latinoamerikako hiru herrialdeetako kasuak aurkeztuko dira, eta horien bidez ikusiko dugu indarkeria matxistak planetako

edozein lekutan gertatzen direla, eta antzekotasun asko dituztela hiru ardatz horietako bakoitzean" ziurtatu du Lidia Ruizek.

Auzitegia egiterakoan, epaimahai bat arduratuko da gomendioak egiteaz kasuetan erantzukizuna duten erakundeei. Gomendioak ondorengoak izan daitezke: "Estatuei gogoraraztea sinatuta izan eta betetzen ez dituzten nazioarteko hitzarmenak eta itunak, epaitegira eramandako kasuren batean legeak behar bezala aplikatzeko gomendioak edota komunikabideei gomendatzea kasuak tratatzeko emakumeen epaiketa publikoa kenduaz", laburtu du Auzitegiko kideak.

Gainera, tresna horiek paper oso garrantzitsua dute emakumeenganako ikuspegia aldatzerakoan, biktimen nozioa alde batera uzten baitute eta subjektu aktibo gisa onartu. "Auzitegiari esker, emakumeen jabekuntza kolektiboa bultzatu nahi da ekintza politikoaren bitartez", nabarmendu du Ruiz andreak. Horri gehitu behar zaio eztabaida soziala sortzeko funtzioa, interes gutxiko erakundeak edo instituzioak deitzeko gai izango dena.

Informazio gehiago:

[www.tribunalderechosmujeres2013.blogspot.com.es](http://www.tribunalderechosmujeres2013.blogspot.com.es)

## Feminitatearen eta dibertsitate sexualaren ikuspegi positiboa duten ipuinak

**E**l lapicero mágico eta La princesa Li bi haur ipuinekin egin berri du debuta Nube Ocho argitaletxe txikiak. Bi ipuinen protagonistak hauek dira: alde batetik, arkatx magikoa aurkituko duen neskatxa (neskak marraztutakoa errealitate bihurtuko du arkatzak); eta, bestetik, printzesa bat (aitak benetan maite ez duen batekin ezkondu nahiko du). Zergatik dira bereziak? Neskatxak bi aita dituelako eta printzesa ez dagoelako maitemindua gazte dotorearekin, atzerritar neska ausart batekin baizik.

Ipuin horietan, sexualitatearen tratamendu normalizatua naturaltasunez egiten da, eta, beraz, haurrek beste era bateko historiak irakurtzeko edo entzuteko aukera ematen dute. Dena den, dibertsitate

sexuala edo arrazakoa izan ohi da pertsonaien ezaugarrietariko bat eta ez protagonista edota historien gatazkaren arazoia.

Carla Trepát-en El tesoro de Lilith ipuina ere hezkuntza sexual onuragarriko haur literatur erreferenteetan egon ohi den hutsunea betetzen ahalegintzen diren ipuinen katalogoan sartzen da. Ipuinak emakumeen sexualitatearen ikuspegi ezberdina eskaintzen du; alegia, “hilekoaren, plazerraren eta sexualitatearen irudi positiboa transmititzen du, irakurleen auto-estimua indartuz haurtzarotik hasita”, egilearen arabera.

Izen apal horiek, Estatu Batuak edo Erresuma Batua bezalako herrialdeetan gehien saltzen di-

ren izenburuak normalean itzultzen dituzten argitaletxe handiek ez bezala, bidea ireki nahi dute beren produkzioekin. Neska-mutilak izaki sexualak direla eta sexualitatea zapaldu gabe bultzatu egin behar den bizitzako alderdi positiboa dela onartzen duen haur literaturaren aldeko apustuak modu positiboan laguntzen du generazio berriak berez eta modu ziurrean gara daitezen.



## Zure sexualitateari erantzuten diogu

**S**exualitateak era erabakigarriari markatzen du gizakia, haren bizitzako garapeneko fase erabakigarri bakoitzean. Zalantzek, aurreiritziek edo, informazio faltak berak, zailtasunak sor ditzakete sexualitatearen osaeran (gorputzari, nortasunari, desioari eta sexu-orientazioari buruzko zalantzak) edo pertsonen arteko harremanetan (asegabetasuna, ulertu ezina, gozamen gabezia, komunikazio txarra, etab.).

Sexu-informaziorako Bulegoaren helburua da adin guztietako pertsonen goza dezatela

haien sexualitatea era osasungarri eta atsegingarrian eta gaindi dezatela izaera sexualeko edozein zailtasun.

Sexu-informazio eta -aholkularitzarako Getxoko bulegoa 2009. urtean jarri zen abian eta, ordutik, sexuarekin lotutako era guztietako kontsultei erantzuteaz gain, kontrazepzioari buruzko oinarrizko informazioa eskaintzen du.

Asteartero egoten da bulegoa irekita, 17:30etik 20:30era, Martikoena kaleko 16. zenbakian (Alangoko anbulatorioaren ondoan). Sexologiako profesionale-

kin egiten dira kontsultak eta isilpekoak eta doakoak dira. Telefono bidez (944660137), posta elektronikoz (sexuinfo@getxo.net) edo elkarrizketa pertsonal bidez egin daitezke kontsultak; azken kasu honetan, garrantzitsua da alde aurretik hitzordua hartzea, telefonoz deituta. Orain arte, jende gehienak zuzeneko elkarrizketaren aukeraren alde egin du, bai bakarka, bai bikotean. Taldekako aholkularitzak ere egin dira, gazte taldeekin, esaterako.

Aholkularitzaren iraupena planteatutako arazoaren araberrakoa izango da.

## Abortua zigorgabetzearen aldeko mobilizazioak iragarri ditu mugimendu feministak



1978an estatuan egindako konzentrazioetako bat abortoa leporatutako 11 emakumeen amnistiaren alde.

**E**AE eta Nafarroako talde feministak plataforma batean koordinatu dira 2010eko Abortuaren Legearen erreformaren iragarpenari erantzuteko. Ezer gutxi dakigu Alberto Ruiz Gallardón Jauna bultzatzen ari den testuari buruz, baina gaur arte hedatu denaren arabera, ez dago zalantzarik “1985koa bera baino legeria murriztaileagoa izango dela”, plataforma osatzen duten hogeitaz hamar emakumeek eta Teresa Maldonadok ohartarazten duen bezala. “Krisi garaia emakumeek asko kostata lortu dituzten eskubideak ahalik eta gehien murrizteko aprobetxatzen dira”, salatu du.

Gaur egungo araudiaren arabera, abortua librea da 14. astera

arte eta, emakumearen bizitza edo osasuna arriskuan baldin badaude edo fetuak anomalia larriak baldin baditu, 22. astera arte, eta 16 urtetan ezartzen du erabakia hartzeko adin-nagusitasuna. Gallardónek dio legeria suposamenduen sistema batera itzuliko dela, 1985etik 2010era arte indarrean egon zen legeriari buruz ari delarik; legeria hartan, hiru kasutan bakarrik ez zegoen abortua zigortuta: bortxaketa kasuetan, emakumearen bizitzarentzat edo osasun fisiko edo psikikoarentzat arrisku larria existitzen bazen eta fetuak akats psikiko edo fisiko larriak baldin bazeuzkan.

Ministroak hainbat elkarriketatara aurreratu duenez, fetuaren malformazioa ez da abor-

tatzeko suposamendu bezala onartuko. “Ez gaude emakumeak haurdunaldia amaierara arte eramatea erabakitzearen aurka, emakumeak bere amatasunaren gainean erabakitzeke daukan eskubidea defendatzen dugu”, azpimarratu du Maldonadok.

Erakunde Feministen Plataformak eztabaida bat ireki du, abortua zigorgabetzearen aldeko mobilizazio-kanpaina bat egiteko. “Funtsezkoa da borrokatzea, izan ere, eskuin atzerakoienak zuzendutako sistema ideologiko eta ekonomiko honetan are eta zailagoa izango da abortatzea, emakumeek haien gorputzari buruz erabakitzeke duten eskubidea bera zalantzan jartzeko aprobetxatzen ari baita eskuin atzerakoi hori”, dio Maldonadok.